



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Alkarbidek – Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak– koordinatuta,
BEHARSAREA.net 28 udalerrira zabaldu da

BEHARSAREA.NET ERABILGARRI BIZKAIKO HAINBAT HERRI ETA MANKOMUNITATETAN

Guztira, Bizkaiko 10 udalerri eta 2 mankomunitatek badute euskarazko lana bideratzeko BEHARSAREA.net web gunea

Euskaraz egiten duten tabernari, dendari, ume zaintzaile eta bestelako lanen eskaera gero eta handiagoa da gure herrietan. Eskaera horri erantzuteko sortu zen 2011n beharsarea.net Getxon, Getxoko Euskara Zerbitzuak eta Egizu elkarteak sustatuta. Oraingo honetan indarberrituta dator; izan ere 9 udalerri eta 2 mankomunitate batu zaizkio Getxoko Beharsarea zenari. Proiektu irekia da, beraz, Euskal Herriko beste udalerri edo mankomunitateren batek parte hartzeko nahia izango balu Alkarbiderekin harremanetan jartzea baino ez du.

Hasierako orria diseinatu da, parte hartzen duten herri eta mankomunitate guztiak batzeko. Bertan, Euskal Herriko mapa batean Bizkaia dago nabarmenduta eta gainean sakatzen badugu parte hartzen duten herri eta mankomunitateen izenak ikusi ahal izango ditugu nahi duguna hautatzeko. Gainera, eskuinaldean argitaratu diren azken eskaintza eta eskaeren zerrenda dago ikusgai.

Beharsarea euskarazko lana bideratzeko interneteko ataria da, doakoa eta euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna erraz eta eraginkorra. Erabiltzaileek bi baldintza baino ez dituzte bete behar: lana euskaraz egitea eta lan baldintzak duinak izatea.

Lanak kategoriatan sailkatuta daude, baina lan mota guztiak bideratzeko balio du Beharsareak. Ildo horretan, lan partzialak zein lan profesionalak eskaini eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez.

Euskaraz lanen bat egiteko jendea aurkitu behar baduzu edota lana bilatu nahi baduzu, orain bide erraz eta zuzena duzu interneten: www.beharsarea.net

Sustatzaileak

Balmaseda (2013) • Bilbo • Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa • Enkarterriko Mankomunitatea (2013) • Erandio • Etxebarri • Getxo • Igorre • Laukiz/Maruri-Jatabe • Leioa • Lemoa.

